

## BALIO PROPOSAMENA

Kanpoan dauden kontainerrek hainbat arazo ekar ditzakete. Hasteko, estetikoki itsusia da kaleetan zaborra metatuta ikustea eta herri, auzo edo enpresa horiek emango duten ikuspegia desatsegina izan daiteke, eta gaur egungo gizartean ezinbestekoa da irudi ona ematea.

Gainera, zaborra kaleetan metatzeari, ingurumeneko faktoreak gehitzen badizkiogu, hala nola, hezetasun eta tenperatura egokiak, intsektu, arratoi, etab. mota ezberdineko izaki bizidunak ager daitezke, osasunerako arazo bat sor daitekeenak. Hori gutxi balitz, hondakinetan hainbat mikrobio eta bakterio agertzeko ingurune aproposa da.

Beste alde batetik, usainaren arazoa daukagu, hau da, sortutako kiratsa desatsegina izan daiteke.



Arazo hauekin amaitzeko, gure proiektua aurrera eramatea ezinbestekoa da. Gure sistema berri hau aurrera eramanez gero, auzokideek ez dituzte kezkarik izango kaleetan ez da nabarituko eta.

Gure enpresak kaleetan metatutako zaborraren arazoa konponduko du, baita hauek sortzen dituzten kiratsa, intsektuak, animaliak, ... Kaleek garbiago, libreagoak eta zabalagoak izango dira kontainerrek kenduz gero, beste aldetik, zaborraren kamioien zarata askoz txikiagoa izango da, honekin lortuko duguna, hirietako auzoteriak askoz lasaiagoak eta inguru onekoak izatea da.

Zaborraren bilketan oinarritzen diren beste enpresekin lehiatzeko, eskaintzen dugun zerbitzua askoz erosoagoa da. Gainera, oso teknologia eta diseinu sofistikatu erabiliko dugu honen eraikuntza egiteko eta funtzionamendu egokia izan dezan. Hala ere, garestia izango da, lehia egiteko zailduko duena.